

Umezurtzak, alargunak dakustaz bide zear...
Kañoi izukorren suak ez dautse sartu dardarrik,
suagaz oituak dira, lerkai-jasez oituak,
adoretsu nunbait bizi-lurra jagon bearrik.

Jazki oriztaz dagoz zugatz-adar goenak,
eguzki jaunak ez ditu edo oraingoan kutun;
anai diranen biotzak ikara baten jarriz,
sentipen ez-onez dabil ibar laiñoa zurrun.

SASETA IL DA!

Oi, jausi zara, jausi, Saseta kutuna!
Gaurtik illen arteko egiña zaitugu.
Aizea baizen arin da en-or edatu
zure eriotz miñaren il-izpar ertuna.

Leiatsu maite zendun euzko Aberria,
ta Aberritik urrin, oil, jausi zara,
Betikoz jausi zara, leñargi antzera;
biotzak ez nai ziñets, baiña egia da.

Izkillots atergea, lurak dart oinpean,
sua kea, garra, gudean gartsuki;
giza gurenak letxe ereiñoz bekoki □
jausi zara azkenez etsaien aurrean.

Erbeste-lurraldetan emon izan dozu,
euskal lurra begira, azken arnasia;
baiña azkatasunaren lora apain-guria
ementxe jaioko da, eder, naro, txairu,

Biotzean min dogu, Saseta maitea,
biotzean min dogu, begian negarra;
samin-uluz daukagu laztan dozun lurra,
errai-dardaraz, izu, euzkotar mendia.

Uso zuri-otzana basoan egazka,
biotzak samin-eunaz dituzu estali.
Baiña zu ego zuriz, arranoa iduri,
argi-itzal-eziñera aldatua zara.

Atsedan, bai, atsedan betiko argitan,
barne-muiña eresiz, goi-argiz adiña.
Beukozu azken baga zeru-atsegiña.
Laster gaituzu gu be, or, goialde ortan.

ABERRI EDER

Maitasun-ontzi, zitori-baratz,
Aberri eder, maitea:
mendi lilitsu ta ibar usaintsuz
buru-oin oso betea.

Gari-sailleko uifien otsera
lurak maitari oiva,
urrindik dantzut polpolka doan
lastxo gardenan zantzua.

Zugatz-gerizan zarrak astitsu
aintzin-ipuñen kontari;
txori gazteak, dardar biotza,
abi-auzoan txintari.

Biotz kutunen sugar gorria
sariz ordaintzen dakizu,
ta eder zara, Aberri maite,
egiaz eder zara zu.

Baiña oraindik eder-onago
ludian zara agertzen,
gudari-senak aintza-ereñoz
baldin ba'dozuz loratzen.